

Altza

«Ez dut inoiz gazterik batertu atletismorako dohainak ez izateagatik»

Genaro Borobio oso ezaguna da Altzan. 55 urte ditu eta duela 20 urtetik atletismoa egin nahi duten neska-mutil gazteekin ari da lanean.

Nola suertatu zitzaizun auzoko gazteekin entrenatzaile aritzeko aukera?

80ko hamarkada hasieran, Altzara bizitzera etorri nintzenean, auzoko ikastetxe batekoek korrika egiten ikusten ninduten Altzan barrena. Hala batean, galdetu zidaten ea posible izango ote nuen neskatoak entrenatzea, eta nik baiezkoa eman nien. Urte gutxi batzuk geroago, mutikoak ere hasi ziren atletismoan. Eta poliki-poliki auzoko beste ikastetxeetako gazteak eta ingurukoak atletismo eskola moduko hartara etortzen hasi ziren. Hasi ginenean Altzan ez zegoela kiroldegirik, eta jendeak, kalean korrika ikusten gintuenean, burutik jota nengoela esaten zuen. Orain badugu kiroldegian aritzerik. Ha-



«Lasarteko Krosa izan zen nire lehenengo lasterketa»

la ere, behin baino gehiagotan proposatu dut kiroldegiaren atzealdean atletismo pista txiki bat egokitzea. Hori, ordea, ez dugu lortu.

Astelehenetik ostiralera auzoan aritzen gara, eta astebu-

kaeretan irteerak egiten ditugu: Uliara, Jaizkibelera, Aralarra... Irteera hauei esker, hainbat gaztek inguruko geografia ezagutu dute.

Eta zuk noiz ekin zenion korrika egiteari?

Egia esan, kasualitatez hasi nintzen. Elizondon, soldaduska garaian, kirola egiten ibiltzen nintzen beti: tenisean, saskibaloian... Hori zela eta, lagunek Lasarteko Krosean parte har nezan zirikatu ninduten. Lasterketa hartan aterra nintzen, eta helmugara iristea lortu nuen. Horrela hasi nintzen korrika egiten. Ondoren, urte batzuez, Donostiako Atletikon ibili nintzen.

Txapeldun handiren bat izan al duzu zure esanetara?

Gipuzkoa zein Euskadiko Txapelketetan emaitza politik lortu dituzten neska-mutil gazte batzuk aritu dira nirekin. Hala ere, inoiz ez dut gazterik baztertu atletismorako dohainak ez izateagatik. Norbait ona bada, hobe berarentzat. Gazte zintzoak izateak

arduratu nau gehien. Zertarako nahi dut nik oso atleta on bat, ez bada disziplinarik eta ez bada entrenamendu saioetara etortzen?

Auzotarrek zu proposatu zintuzten Hiri Merezimenduari Domina jasotzeko...

Bai, eta gainera bereak eta bi egin zituzten sinadura bilketa egiten ari zirela jakin ez nezan. Azkenean, ez zidaten dominarik eman, baina hori guxtienekoa da.

Gazteek bestelako omenaldiren bat ere egin dizute, ezta?

Hala da. 50 urte bete nituenean, nire bizitzaren bideo moduko bat egin zuten. Egia esan, nire bizitzak eleberri bat egiteko ematen du. Soriako herririka txiki batean jaioa naiz. Nire sendia oso txiroa zen. 15 urterekin etxetik alde egin nuen, eta Donostiara etorri nintzen, inor ezagutu gabe. Hasieran, gorriak ikusi nituen ez neukalako dirurik... ezta jatekorik ere. Hala ere, zorionez, urteen joan-etorriarekin egoerak hobera egin zuen.



Esku-pilota txapelketa

Igandean, hilak 24, Euskal Giroa elkartek antolatutako III. Ikas-Pilota Txapelketa hasiko da. Altzarako Ustrillako Paba Pago la, Anzoa, Hernani, Irujo, Ondoa eta Igeldoko pilotari taldeetarako pilotari gazteek hartuko dute parte. Partidek igande goizetan jokatu dira. Herriako frontoan, eta finalak ekainaren 20an izango dira.